



96. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2015eko uztailaren 27an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria:

Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak:

M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Gotzon Embil Unanue jna.
Jon Joseba Iraola Rezola jna.
Cristina Vicente Iciar and.
Xabier Garmendia Iztueta jna.
Alex Oliden Antia jna.
Arritokieta Iribar Egaña and.
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.
Nerea Eizagirre Telleria and.
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak

Josu Arrieta Arriola jna.
Ione Muguerza Egaña jna.

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre

EGUNEKO AZTERGAIK



**1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:
(95. zbkia - 2015.07.09).-**

Onartutzat ematen da.

2.- OGASUNA.-

2.1.- UDALAREN AURREKONTUAREN 7. 8. ETA 9. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.-

M. Cruz Alvarezek (EAJ-PNV) gaiaren berri eman du:

7. kreditu aldaketak izan du Futbol zelairako belar artifizialaren partidaren gehikuntza 183.931,16 € eta hori joango dela diruzaintza gerakinarekin.

8. kreditu aldaketari dagokionez partida aldaketa izango da jabeakuntzan hasierako kreditua 12.000€koa zela; 6.700€tan gutxitzen dela eta guztira geratuko dira 5.300€.

Gehikuntza izango duen partida izango da berdintasuneko beka, hasierako kreditua zerokoa zen gehikuntza 6.700 eta guztira 6.700€koa geldituko da.

9. kreditu aldaketari dagokionez, hemen gehikuntza jadarreko horman izango da 350.000€takoa eta baita ere gehitu behar zaio udako pertsonala partida, hemen hasierako kreditua 2.500€koa zen gehikuntza 6.944,19€koa zen eta guztira 9.444,19 € gelditzen dira.

Hau joango da diruzaintza gerakinarekin, eta diruzaintza gerakinak izango du gehikuntza bat 356.944,19€koa, guztira diruzaintza gerakinak izango du 356.944,19€.

Joseba Azpiazuk (EH BILDU) esan du aurrekoan ogasun batzordean galdetu zuela partida txikiena juxtu, udako pertsonala hain zuzen ere, eta ez zela gelditu garbi eta ez dakiela zihur udako zein pertsonalari buruz ari den den.

Kontuhartzaileak zehaztu du geratu zirela aurrengo ogasun batzordean begiratuko zutela baina hasiera batean pertsonalari ez dakite ezer eta aztertzen ari direla, beraz batzordean argituko diotela.

M. Cruz Alvarezek (EAJ-PNV) adierazi du Turismoko pertsonala hasiera batean kapitulu batetik pentsatzen zela joatea eta legearen aurka ez joateagatik erabaki dutela beste bide batetik eramatea eta Turismoko errefortzuari dagokion lanpostuari dagokiola hain zuzen.



2.2.- KONTUHARTZAILEAREN 2015/6 ERREPARO ORRIA (RPTa eta PLANTILA ALDATZEARI BURUZKOA) ETA ALKATEAREN ERANTZUNAREN BERRI EMATEA.

Kontuhartzaileak esan du RPT-aren aldaketaren ondorioz egin duen ingera edo erreparo orria. Aldaketa hauek lehenengo kapituluaren igoera ekartzen dute eta Estatu mailako aurrekontuak ez duela uzten lehenengo kapitulua igotzea, horregatik RPT-aren aldaketaren kontra erreparo orri bat. Alkateak ohiak –Iñaki Agirrezbalagak, hain zuzen- erreparo orri honi erantzuten dio aurrera jotzea erabakiz, berak, esan zuen udalerrian dauden beharrak kontuan izanik eta bestetik behar horiei erantzuteko udal langile teknikoak egindako txostena kontuan harturik RPT-a eta plantilaren aldaketa horiekin jarraitu eta lanpostu horiei dagokien ordainsariak sortzen direnak gauzatzea.

Alex Olidenek (EH BILDU) taldearen iritzia azaldu du esanez, Legea inportantea izango dela, baina legea beti ez dela legítimoa eta ezin dugula ahaztu lege horiek eratorrita datozela konstituzioa ezkutuan eta atzeko atetik aldatu zuten Estatuko alderdi politiko inportanteenetako ordezkariak eta aldaketa horrek hain zuzen ekarri zuen lehenestea bankuei laguntzea eta ez herritarrei, herritarren arazoak baino lehenago zor arazoak zeudela eta zorrei erantzun behar zitzaiola; orduan legitimitateri ez dietela aitortzen lege horri eta lege hori segitu beharrean herriko zerbitzuak mantendu eta hobetzen saiatzea dela beraien apustua; gainera sektore publikotik eskainitako zerbitzu baten bidez beraien filosofia horretan doala, horren alde egiten dutela eta iritzi hori plazaratu nahi luketela hemen.

Alkateak esan du azkenean gu hemen legea betetzeko gaudela eta hori goitik datorren lege batzuek direla eta udal-gobernua, behintzat, ez dagoela dispuesto legeak haustea.

2.3.- KONTUHARTZAILEAREN 2015/7 ERREPARO ORRIA (ZERBITZU KONTRATUEI BURUZKOA) ETA ALKATEAREN ERANTZUNAREN BERRI EMATEA.



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (7/2015):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoerataz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu:

KONTRATUEN ERANSKINA				
Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
GESMUNPAL	Recaudación ejecutiva	26/07/2010	2+2	26/07/2014
GESMUNPAL	Inspección de tributos	10/11/2010	2+2	10/11/2014
Eulen	Kudeaketa Branka y SAD	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UNI 2	Limpieza edificios-ampliación	19/10/2009	1 año	19/11/2010
UNI 2	Limpieza edificios municipale	01/07/2009	1+1	01/07/2011
Harrespil S.L.	Hilerria-kudeaketa	01/03/2005	1+1	01/03/2007
CESPA, S.A.	Zabor bilketa(RSU)	01/11/2007	mensual	01/12/2007
CESPA, S.A.	Kale garbiketa	01/11/2007	mensual	01/12/2007
CESPA, S.A.	Paioi bat gehitzea lanaldi osoan		mensual	27/12/2007
Irati S.L.	Desratizazioa	01/06/2008	1	01/06/2009
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Edukiontzi higienikoa	EURO-SERVHI	15/08/2010	1	15/08/2011
Alhondiga atea mar	DORMA	15/05/2011	1	15/05/2012
HITZEKO E.M.U.	Komunikazio plana	01/12/2008	1	01/12/2009
Miren Usua Urbieta	Aita Mari Zinea	4/04/2011 (luzapena		04/04/2011

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

"23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea."



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001

1. Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian**, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzuketak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arruntan 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arruntan 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

"26. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:

k) Hala egokitzuz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

"67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatu erantsiko zaie.

"70. artikulua. Ingerak."

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtssezko beharkizun** edo izapidetza alde batetara utzi direnean.



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu batagina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu batagina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzun gabe, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gairerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZEIBAKIA	INTERESATUA	KOITZEP TUA	GUZTIZKOA BEZA BARRIE
01/03/2015	950/100338649	Rentokil initial	Martxoa: desinsektazioa eta desratizazioa	649,89
01/04/2015	950/100342520	Rentokil initial	Apirila: desinsektazioa eta desratizazioa	649,89
01/05/2015	950/100347090	Rentokil initial	Maiatza: desinsektazioa eta desratizazioa	649,89
30/04/2015	3088756	Eulen servicios sociosanitarios	Martxoa:Autonomoak	4.909,56
30/04/2015	3088757	Eulen servicios sociosanitarios	Martxoa:Mendekoak	17.358,52
30/04/2015	3087268	Eulen servicios sociosanitarios	Martxoa: Eguneko zentroa	20.595,56
30/04/2015	3106494	Eulen servicios sociosanitarios	Apirila: :Autonomoak	3.582,00
30/04/2015	3106495	Eulen servicios sociosanitarios	Apirila:Mendekoak	12.127,00
31/01/2015	3036909	Eulen servicios sociosanitarios	Urtarrila:Mendekoak	12.556,29
31/01/2015	3036908	Eulen servicios sociosanitarios	Urtarrila: :Autonomoak	5.345,75
31/03/2015	15CND00010	CESPA, S.A.	Martxoa: Zabor bilketa eta kale garbiketa	41.504,14
31/03/2015	15CND00009	CESPA, S.A.	Martxoa: Peoi-Gidari baten ampliazioa %100	1.933,46
30/04/2015	15CND00013	CESPA, S.A.	Apirila: Peoi-Gidari baten ampliazioa %100	1.933,46
30/04/2015	15CND00014	CESPA, S.A.	Apirila: Zabor bilketa eta kale garbiketa	41.504,14
30/04/2015	1502549	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Branka	1073,09
30/04/2015	1502550	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Udaletxea	2790,02
30/04/2015	1502551	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Udaltzaingoa	643,85
30/04/2015	1502552	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Ludoteka	804,82
30/04/2015	1502553	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Turismo	643,85
30/04/2015	1502554	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Algorri	740,92
30/04/2015	1502555	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Gaztetxola	214,62
30/04/2015	1502556	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Kaleko Komunak	2924,15
30/04/2015	1502557	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Alondegia	3111,94
30/04/2015	1502558	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Aita Mari Ikastetxea	5901,96
30/04/2015	1502559	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Sagarbide	9550,45
30/04/2015	1502560	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Arrangoletako haurtzaindegia	1985,21
30/04/2015	1502561	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Jubilatuen etxea	1609,63
30/04/2015	1502562	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Bake epaitegia	214,62
30/04/2015	1502563	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Markesina	80,48
30/04/2015	1502564	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Aita Mariko haurtzaindegia	1985,20
30/04/2015	1502565	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Oikiako eskola	1609,63
30/04/2015	1502566	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Brigada	107,30
30/04/2015	1502567	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA E.P.A.	643,85
30/04/2015	1502568	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Jadarreko igogailuak	209,69
30/04/2015	1502569	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Foronda	160,97
30/04/2015	1502570	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Aradantzabideko igogailua	212,98
30/04/2015	1502571	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Torreberri	536,55
30/04/2015	31/15	KASTORE GEST, S.L.	Kultura Salla - Apirila	1.270,04
29/04/2015	30/15	KASTORE GEST, S.L.	Kultura departamentua, San Telmoak	870,81
29/04/2015	29/15	KASTORE GEST, S.L.	Berdintasuna - San Telmoak	118,14
31/05/2015	49/15	KASTORE GEST, S.L.	Kultura Salla - Maiatza	824,19
29/05/2015	47/15	KASTORE GEST, S.L.	Emakumeen osasunaren aldeko ekintzaren nazioarteko eguna (banaketa)	333,14
16/05/2015	15/75	Hitzeko, S.L.	Maiatza: Komunikazio planaren kudeaketa	4.332,56
31/05/2015	15CND00017	CESPA, S.A.	Maiatza: Peoi-Gidari baten ampliazioa %100	1.933,46
31/05/2015	15CND00018	CESPA, S.A.	Maiatza: Zabor bilketa eta kale garbiketa	41.504,14
31/05/2015	150385	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Branka	1073,09
31/05/2015	150386	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Udaletxea	2790,02
31/05/2015	150387	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Udaltzaingoa	643,85
31/05/2015	150388	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Ludoteka	804,82
31/05/2015	150389	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Turismo	643,85
31/05/2015	150390	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Algorri	740,92
31/05/2015	150391	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Gaztetxola	214,62
31/05/2015	150392	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Kaleko Komunak	2924,15
31/05/2015	150393	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Alondegia	3111,94
31/05/2015	150394	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Aita Mari Ikastetxea	5901,96
31/05/2015	150395	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Sagarbide	9550,45
31/05/2015	150396	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Arrangoletako haurtzaindegia	1985,21
31/05/2015	150397	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Jubilatuen etxea	1609,63
31/05/2015	150398	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Bake epaitegia	214,62
31/05/2015	150399	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Markesina	80,48
31/05/2015	150400	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Aita Mariko haurtzaindegia	1985,20
31/05/2015	150401	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Oikiako eskola	1609,63
31/05/2015	150402	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Brigada	107,30
31/05/2015	150403	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA E.P.A.	643,85
31/05/2015	150404	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Jadarreko igogailuak	209,69
31/05/2015	150405	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Foronda	160,97
31/05/2015	150406	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Aradantzabideko igogailua	212,98
31/05/2015	150407	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Torreberri	536,55
08/06/2015	15/87	Hitzeko, S.L.	Zumaiazu aldizkaria - 4 orrialde gehiago (ekaina)	622,55
			GUZTIRA	292.620,14

ONDORIOAK:



Zumaiaiko Udala

2015IAKU0008-007-001

a) Ingera orri honetan ere, aurreko ingera orrietan aipatu zen bezala, aipatu behar da CESPAGO egoera oso larria dela "hilabete baterako" atera zelako bai zabor bilketa zerbitzua eta bai kale garbiketa.

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenaren kontra doa. Honek esaten du:

"23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea."

Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Beraz ez du zentzurik zerbitzua hilabete iraunaldia izatea eta kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeak; egunero zaborrak jaso eta kaleak garbitzen direlako urte askotan zehar, eta urteko zenbatekoa handia delako.

b) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

c) Mementoz, zerrendatutako fakturen ordainketaren izapidetza etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Zumaiaiko Kontu-hartzailea

Miguel Zubizarreta Elicegui

436/2015 ALKATE DEKRETUA

AURREKARIAK

2015eko ekainaren 9an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (7/2015) (1706/2015 erregistro zenbakiarekin):

Kontu-hartzaileak, Zumaiaiko kontratuen egoeraz interesaturik, Udaleko kontratuen informazioa eguneratu ondoren, honako hauek epez kanpo aurkitu ditu:



KONTRATUEN ERANSKINA				
Enpresa	Kontratatuak zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
GESMUNPAL	Recaudación ejecutiva	26/07/2010	2+2	26/07/2014
GESMUNPAL	Inspección de tributos	10/11/2010	2+2	10/11/2014
Eulen	Kudeaketa Branka y SAD	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UNI 2	Limpieza edificios-ampliación	19/10/2009	1 año	19/11/2010
UNI 2	Limpieza edificios municipales	01/07/2009	1+1	01/07/2011
Harrespil S.L.	Hilerria-kudeaketa	01/03/2005	1+1	01/03/2007
CESPA, S.A.	Zabor bilketa(RSU)	01/11/2007	mensual	01/12/2007
CESPA, S.A.	Kale garbiketa	01/11/2007	mensual	01/12/2007
CESPA, S.A.	Paioi bat gehitzea lanaldi osoan		mensual	27/12/2007
Irati S.L.	Desratizazioa	01/06/2008	1	01/06/2009
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Edukiontzi higienikoa	EURO-SERVHI	15/08/2010	1	15/08/2011
Alhondiga atea man	DORMA	15/05/2011	1	15/05/2012
HITZEKO E.M.U.	Komunikazio plana	01/12/2008	1	01/12/2009
Miren Usua Urbietak	Aita Mari Zinea	4/04/2011 (luzapena		04/04/2011

Gaurko egunean oraindik kontratu hauek irregulartasun egoeran daude. Egoera hau jakinarazi zen aurreko erreparorrian.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, hainbat kontratu epez kanpo daudela ohartarazten du. Horren aurrean, aplikagarriak zaizkion arauak aipatzeaz gain, indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi direla zehazten du.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZEIBAKIA	INTERESATUA	KOITZEP TUA	GUZTIZKOA BEZA BARRIE
01/03/2015	950/100338649	Rentokil initial	Martxoa: desinsektazioa eta desratizazioa	649,89
01/04/2015	950/100342520	Rentokil initial	Apirila: desinsektazioa eta desratizazioa	649,89
01/05/2015	950/100347090	Rentokil initial	Maiatza: desinsektazioa eta desratizazioa	649,89
30/04/2015	3088756	Eulen servicios sociosanitarios	Martxoa:Autonomoak	4.909,56
30/04/2015	3088757	Eulen servicios sociosanitarios	Martxoa:Mendekoak	17.358,52
30/04/2015	3087268	Eulen servicios sociosanitarios	Martxoa: Eguneko zentroa	20.595,56
30/04/2015	3106494	Eulen servicios sociosanitarios	Apirila: :Autonomoak	3.582,00
30/04/2015	3106495	Eulen servicios sociosanitarios	Apirila:Mendekoak	12.127,00
31/01/2015	3036909	Eulen servicios sociosanitarios	Urtarrila:Mendekoak	12.556,29
31/01/2015	3036908	Eulen servicios sociosanitarios	Urtarrila: :Autonomoak	5.345,75
31/03/2015	15CND00010	CESPA, S.A.	Martxoa: Zabor bilketa eta kale garbiketa	41.504,14
31/03/2015	15CND00009	CESPA, S.A.	Martxoa: Peoi-Gidari baten ampliazioa %100	1.933,46
30/04/2015	15CND00013	CESPA, S.A.	Apirila: Peoi-Gidari baten ampliazioa %100	1.933,46
30/04/2015	15CND00014	CESPA, S.A.	Apirila: Zabor bilketa eta kale garbiketa	41.504,14
30/04/2015	1502549	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Branka	1073,09
30/04/2015	1502550	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Udaletxea	2790,02
30/04/2015	1502551	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Udaltzaingoa	643,85
30/04/2015	1502552	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Ludoteka	804,82
30/04/2015	1502553	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Turismo	643,85
30/04/2015	1502554	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Algorri	740,92
30/04/2015	1502555	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Gaztetxola	214,62
30/04/2015	1502556	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Kaleko Komunak	2924,15
30/04/2015	1502557	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Alondegia	3111,94
30/04/2015	1502558	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Aita Mari Ikastetxea	5901,96
30/04/2015	1502559	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Sagarbide	9550,45
30/04/2015	1502560	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Arrangoletako haurtzaindegia	1985,21
30/04/2015	1502561	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Jubilatuen etxea	1609,63
30/04/2015	1502562	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Bake epaitegia	214,62
30/04/2015	1502563	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Markesina	80,48
30/04/2015	1502564	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Aita Mariko haurtzaindegia	1985,20
30/04/2015	1502565	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Oikiako eskola	1609,63
30/04/2015	1502566	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Brigada	107,30
30/04/2015	1502567	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA E.P.A.	643,85
30/04/2015	1502568	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Jadarreko igogailuak	209,69
30/04/2015	1502569	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Foronda	160,97
30/04/2015	1502570	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Aradantzabideko igogailua	212,98
30/04/2015	1502571	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	APIRILA Torreberri	536,55
30/04/2015	31/15	KASTORE GEST, S.L.	Kultura Salla - Apirila	1.270,04
29/04/2015	30/15	KASTORE GEST, S.L.	Kultura departamentua, San Telmoak	870,81
29/04/2015	29/15	KASTORE GEST, S.L.	Berdintasuna - San Telmoak	118,14
31/05/2015	49/15	KASTORE GEST, S.L.	Kultura Salla - Maiatza	824,19
29/05/2015	47/15	KASTORE GEST, S.L.	Emakumeen osasunaren aldeko ekintzaren nazioarteko eguna (banaketa)	333,14
16/05/2015	15/75	Hitzeko, S.L.	Maiatza: Komunikazio planaren kudeaketa	4.332,56
31/05/2015	15CND00017	CESPA, S.A.	Maiatza: Peoi-Gidari baten ampliazioa %100	1.933,46
31/05/2015	15CND00018	CESPA, S.A.	Maiatza: Zabor bilketa eta kale garbiketa	41.504,14
31/05/2015	150385	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Branka	1073,09
31/05/2015	150386	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Udaletxea	2790,02
31/05/2015	150387	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Udaltzaingoa	643,85
31/05/2015	150388	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Ludoteka	804,82
31/05/2015	150389	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Turismo	643,85
31/05/2015	150390	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Algorri	740,92
31/05/2015	150391	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Gaztetxola	214,62
31/05/2015	150392	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Kaleko Komunak	2924,15
31/05/2015	150393	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Alondegia	3111,94
31/05/2015	150394	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Aita Mari Ikastetxea	5901,96
31/05/2015	150395	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Sagarbide	9550,45
31/05/2015	150396	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Arrangoletako haurtzaindegia	1985,21
31/05/2015	150397	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Jubilatuen etxea	1609,63
31/05/2015	150398	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Bake epaitegia	214,62
31/05/2015	150399	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Markesina	80,48
31/05/2015	150400	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Aita Mariko haurtzaindegia	1985,20
31/05/2015	150401	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Oikiako eskola	1609,63
31/05/2015	150402	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Brigada	107,30
31/05/2015	150403	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA E.P.A.	643,85
31/05/2015	150404	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Jadarreko igogailuak	209,69
31/05/2015	150405	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Foronda	160,97
31/05/2015	150406	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Aradantzabideko igogailua	212,98
31/05/2015	150407	Union Internacional de Limpiezas, S.A.	MAIATZA Torreberri	536,55
08/06/2015	15/87	Hitzeko, S.L.	Zumaiazu aldizkaria - 4 orrialde gehiago (ekaina)	622,55
			GUZTIRA	292.620,14

ERABAKI DUT:



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001

Horren aurrean:

1. Ikusirik Hiri hondakin solidoen bilketa, eta garraioaren zerbitzu espedientearen iragarkia Europako Aldizkari Ofizialera bidali dela, jarrai daitezela esleipenerako gainontzeko tramite guztiak.
2. Ikusirik Kale garbiketa zerbitzuaren espedientearen iragarkia Europako Aldizkari Ofizialera bidali dela, jarrai daitezela esleipenerako gainontzeko tramite guztiak.
3. Esleitzera atera behar diren kontratuen prozedurak martxan jartzeko agindua ematen jarraitzen dut. Bitarte horretan zerbitzua ematen jarraitu behar denez, ordaindu daitezela emandako zerbitzu horiek.

Zumaian, 2015eko ekainaren 9an.

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta
Zumaia Udako Jarduneko Alkatea.

Mari Kruz Alvarezek (EAJ-PNV) gaia azaldu du.

2.4.- 2015EKO AURREKONTUAREN 9.KREDITU ALDAKETAREN ONDOREN EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEKO TXOSTENAK AURREKONTU EGONKORTASUNA BETEZEN EZ DUELAKO UDALBATZARI BERRI EMATEA.-

2.5.- 2015EKO AURREKONTUAREN 9.KREDITU ALDAKETAREN ONDOREN EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEKO TXOSTENAK, GASTU ARAUA BETEZEN EZ DUELAKO UDALBATZARI BERRI EMATEA

4. eta 5. gaiak elkarrekin aztertu dira:

Mari Kruz Alvarez (EAJ-PNV) esan du Kontuhartzaileak bi txosten azaldu dituela bat gastu arauari buruzkoa eta bestea aurrekontuaren egonkortasunari buruzkoa, eta Kontuhartzaileari eman dio hitza.

Kontuhartzaileak adierazi du bi txosten egin dituela; Bietan gertatzen dena da egonkortasuna, iraunkortasuna eta gastu araua betetzen ez delako txosten batzuek egin behar direla nahi edo ez nahi; hasiera batean betetzen ez zirelako bai egonkortasuna bai gastu erregela plan ekonomiko-finantzarioa egin behar zela baina, gerakina edo erremanentea erabili dugulako eta beste baldintza batzuek ematen direnean adibidez, bada, likidazio positiboa baldin bada eta



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001

hornitzaileei 30 egun baino lehenago ordaintzen baldin badiegu, orduan plan ekonomiko finantzarioa egin beharrean osoko bilkurari jakinaraztearekin nahikoa da tramitea betetzeko.

Joseba Azpiazuk (EH BILDU) esan du gai biekin lotuta doana, egonkortasun araua eta gastu araua betetzeko egin diren kreditu aldaketak behin eta berriz gerakinarekin egin direla eta orduan nahiko nuke aipatu aurreko gobernuak nahiz eta kritika asko egon ziren ba... azkenean 2014ko itxiera likidatu ondoren milioi t´erdiko gerakina geratu dela eta gerakin horregatik ez balitz izan kasu honetan egin beharko litzateke plan ekonomiko finantzarioa, honek daukan lanarekin eta kostuarekin.

Alkateak esan du gai honen inguruan harritzen diola hitz horiek EH BILDUKo ordezkariak esatea, hilabete daramagu hemen udaletxe honetan eta ordainketa egin behar baditu, izango da aurretik jaso dugun egoeratik ez beste ezerengatik, eta jadarreko obra ere ba EH Bilduren legealdian obra bat dela eta hortik eratorritako kreditu aldaketa inportanteena hortik datorrela, 350.000€na, orduan milioi t´erdi utzi zigun aurreko korporazioak eta obligazioak ere bai, pago obligazioak ere bai.

Alex Olidenek (EH BILDU) esan du ez duela uste jadarreko obra gaizki atera izana Bilduren kulpa izango denik, bakarrik hori, gaizki atera dela eta kitto,

Alkateak obra hori Bilduren legealditik datorrela ez duela besterik esan duela ez bere kulpa denik.

Alex Olidenek (EH BILDU) Kulparik ez baina aipatu duguna dela, gerakina gelditu zela eta gerakina horri esker lasaitasun puntu bat badaukala udal honek heldu behar dion gastuei aurre egiteko, besterik gabe.

Mari Kruz Alvarezek (EH BILDU) esan du gerakin horretan zegoela futbol zelaiko belarra konpontzea ere, edo berritzea ere, orduan ez da guk kreditu berri bat sartu dugunik baizik eta atzetik datorren kreditu bat dela.

3.- HIRIGINTZA.-

3.1.- IRIZPENA:

OIKIA AUZOAN, HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO 3 UNITATEKO IKASTETXE BERRIA ERAIKITZEKO OIKIAKO LURSAILA EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILAREN ESKU JARTZEKO AKORDIOA ONARTZEA, BIDEZKO BADA, ETA ALKATEARI AKORDIOA FOMALIZATZEKO BEHARREAZKOAK DIREN AGIRIAK SINATZEKO GAITASUNA EMATEA.



2015EKO UZTAILAREN 21EKO HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, OIKIKO AUZOAN HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO 3 UNITATEKO IKASTETXE BERRIA ERAIKITZEKO OIKIAKO LURSAILA EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILAREN ESKU JARTZEKOARI DAGOKIONA.

AURREKARIAK

1.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2008ko Maiatzaren 22an 3.000m²ko lursail bat bere esku jartzeko eskaera aurkeztu zuen, bertan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 3 unitateko Eskola berri bat eraiki ahal izateko.

2.- 2008ko Maiatzean Udal Arkitekto teknikoak eta Hezkuntzako Teknikariak txostena egin zuten, non Oikiako eskolaren egoera txarra eta eraikin baten beharraren premia azaldu zuten.

3.- 2010eko maiatzaren 24an Francisco Garate Uranga jaunak eta Zumaia Udalak lursailak trukatzeko permuta konpromisoa sinatu zuten. Hitzarmen horren bitartez Zumaia Udalak Oikiako 039-13 lursaileko 4.235 m² eskuratuko lituzke, behin Arau Subsidiarioak aldatuta, eta ondorioz, luraren klasifikazioa, Oikia auzoko eskola berria eraikitzeke, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku jartzeko lursaila.

4.- 2014ko urtarrilaren 31n, 20 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Zumaia Arau Subsidiarioen laugarren aldaketaren, 19 HA OIKIARI dagokionaren, behin betiko onarpena argitaratu zen.

Arau Subsidiarioen 4. aldaketaren onarpenaren ondotik, 039.13 lurzatiaren hirigintza ezaugarriak hauek dira:

KLASIFIKAZIOA: Hiri Lurra

KALIFIKAZIOA: Komunitate Ekipamenduko Erabilera. Hezkuntza Ekipamendua.

Era berean, neurketa topografiko zehatzen ondorioz, azalera berriak zehaztu ziren, 2004an onartutako arauetan jasotakoak txikituz. Horrela, 039-13 zenbaki katastrala duen lursailaren benetako azalera 4.018,39 m²-koa da eta ez 4.235 m²-koa, 2010eko azaroaren 4an sinatutako trukaketa konpromisoan jaso zen moduan.

5.- Izapidetze prozesu luze baten ondotik, 2015eko ekainaren 4an trukaketaren eskriturak sinatu ziren; horren baitan, Udalak eskolako zuzkidurarako beharrezkoa den lurzatie (10750 finka) lortu zuen. Trukaketa hori Azpeitiko Jabetza erregistroan 2015eko uztailaren 2an inskribatu zen.

6.- 2015eko ekainaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak berriro aurkeztu du bere esku beharrezkoa den lursaila jartzeko eskaera.

7.- 2015eko uztailaren 14an udal arkitektoak egindako txostenean zehaztu da ikastetxea egiteko gorde den lurra higiene eta osasun aldetiko baldintza egokiak betetzen dituela bertan eraiki ahal izateko.

IRIZPENA

Ondorioz, 2015eko uztailaren 21eko Hirigintza eta Obra eta Zerbitzuen Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Jon Iraola Rezola (EAJ)
Josu Arrieta Arriola (Bildu)
Alex Olliden Antia (Bildu)
Arrixu Marañon Basarte(PSE)

Aurka:
Abstentzia:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001

Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

Lehen.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren esku jartzea ondorengo lursaila Zumaia Oikia auzoan Haur eta Lehen Hezkuntzako 3 unitateko ikastetxe berria eraikitzeko.

DESKRIPZIOA:

URBANA: Heredad llamada Estrata-azpia, proveniente de los pertenecidos denominados Estrata-azpia y Echazpia de la casería Goiburu, sita en el barrio de Oikia de Zumaia. Está clasificada como suelo URBANO no consolidado y de uso de dotación pública escolar. Tiene una superficie de cuatro mil dieciocho metros y treinta y nueve decímetros cuadrados (4.018,39 m²).

Linderos: Norte y Oriente: con pertenecidos del Conde de Villafranca. Sur: con finca matriz de la que se segregó, finca 176 de Zumaia. Por Poniente: con los pertenecidos del caserío Venecia.

Datos registrales: Inscrita en el Registro de la Propiedad de Azpeitia al Tomo 2.188. Libro 199. Folio 26. Finca 10750. Inscripción 2ª.

Lursailak Udalaren lurzoru-ondareari lotutako ondare-ondasun izaera du eta ez du kargarik.

Bigarren.- Konpromisoa hartzea lursailean izan litekeen edozein oztopo kentzeko eta sarbideak eta ur, argi eta estolderi zerbitzuak hornitzeko.

Hirugarren.- Alkateari baimena ematea esku-jartzea formalizatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Laugarren.- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari jakinaraztea.

Zumaian, 2015eko uztailaren 21ean

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeburua
Oier Korta Esnal

Alkateak gaia aurkeztu du.

Alex Olidenek (EH BILDU) esan du urte askotan etorri den arazo bat izan dela Oikiarren premi bati erantzuteko erantzun oso ona izan dela eta aurreko udalbatzak egindako lan guztia eta udalbatza honi tokatu zaionez zorionak ematea besterik gabe; Oso pozgarri dela horrelako erabakiak hartzea esan du.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 (6 EAJ-PNV, 4 EH BILDU, 1 SV-ES)



Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Erabakia: Oikia auzoan, haur eta lehen hezkuntzako 3 unitateko ikastetxe berria eraikitzeko Oikiako lursaila eusko jaurlaritzaren hezkuntza sailaren esku jartzeko akordioaren irizpena onartu da:

Lehena.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren esku jartzea ondorengo lursaila Zumaia Oikia auzoan Haur eta Lehen Hezkuntzako 3 unitateko ikastetxe berria eraikitzeko.

DESKRIPZIOA:

URBANA: Heredad llamada Estrata-azpia, proveniente de los pertenecidos denominados Estrata-azpia y Echazpia de la casería Goiburu, sita en el barrio de Oikia de Zumaia. Está clasificada como suelo URBANO no consolidado y de uso de dotación pública escolar. Tiene una superficie de cuatro mil dieciocho metros y treinta y nueve decímetros cuadrados (4.018,39 m²).

Linderos: Norte y Oriente: con pertenecidos del Conde de Villafranca. Sur: con finca matriz de la que se segregó, finca 176 de Zumaia. Por Poniente: con los pertenecidos del caserío Venecia.

Datos registrales: Inscrita en el Registro de la Propiedad de Azpeitia al Tomo 2.188. Libro 199. Folio 26. Finca 10750. Inscripción 2^a.

Lursailak Udalaren lurzoru-ondareari lotutako ondare-ondasun izaera du eta ez du kargarik.

Bigarrena.- Konpromisoa hartzea lursailean izan litekeen edozein oztopo kentzeko eta sarbideak eta ur, argi eta estolderi zerbitzuak hornitzeko.

Hirugarrena.- Alkateari baimena ematea esku-jartzea formalizatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Laugarrena.- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari jakinaraztea.

4.- PERTSONALA.-

4.1.- IRIZPENA:

LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILA ORGANIKOAN 2 OFIZIAL PLAZAK ETA PEOI PLAZA BAT SORTZEKO UDALBATZAK 2015.04.30ean EMANDAKO HASIERAKO ONESPENA ATZERA BOTATZEA, BIDEZKO BADA.



Mari Kruz Alvarezek (EAJ-PNV) gaia aurkeztu du esanez bi ofizial eta peoi baten plazak sortzeak masa salarrialari ezarritako mugak gainditu egiten dituela. Honen ondorioz legez kontra edo legez kanpo egongo ginela eta EAJ-k ez duela erabakirik hartuko izan genezakeen erantzukizunagatik, ez genuke inoiz legez kanpoko ezer bozkatuko. Orduan ikusita apirilaren 30ean gure alderdikideek kontra bozkatu zutela horregatik ekarri dugu hona.

Joseba Azpiazuk (EH BILDU) batzordean esandako hiru-lau gauza aipatu ditu: Lehenengo gauza ez zela normala aurreko batzordean lehenengo batzordean hain zuzen ere diktamena botatu beharra; bestalde gaiari lotuta beraien beharrezkoa ikusten zela hemen txosten teknikoen arabera bi plaza ofizialenak eta beste bat peoiarena sortzea udal zerbitzua indartzeko eta orduan beraien helburua beti izan dela udal zerbitzuak ematea funtzionarioen bidez zuzenean, udalak zuzenean ematea eta kasu honetan bada horregatik beraien ezezko botua emango dutela; esan du baita ere dauden txosten teknikoetan -arkitekto teknikoarena eta zerbitzuetako edo brigadako arduradunarena ere bai- eta EAJko ordezkariak adierazi duenaren harira - ez zirela aipatzen koste ekonomikoak konparaketak egiteko- bere ustetan behintzat printzipioz aurrekontuetan dagoen kopurua ur zerbitzuaren gestioa ordaintzeko 200.000€ direla urtean, eta pentsatzen duela teknikoek ez zutela horrela hain -bote prontoan- txosten bat egingo horren alde. Bukatzeko nabarmendu du, aprobetxatu dela administrarien aldetik aurkeztutako alegazioari eman beharreko erantzuna beste gai hau - bi ofizial eta peoien lanpostua sortzearena- atzera botatzeko.

Mari Kruz Alvarezek (EAJ-PNV) argitu du batzordean hitz egin zenari buruz, berak esan nahi izan duena dela hain zuzen txosten horretan ez dela zehazten bai peoi bat eta bi ofizialek egingo zituzten lanak zein izango ziren, ekonomikoki ze eragin edukiko zuen aurrekontuetan badakiela partida bat dagoela 200.000 €koa baina klaro guzti hori baloratu egin beharko genukeela eta ekonomikoz aparte iruditzen zaiola bestalde jendearekiko ere eragina izango lukeela, ur zerbitzuetan ere langileak daudela lanean, Zumaiarrak direla baita ere eta bere ustez dut hori ere baloratu egin beharko genukeela.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 (6 EAJ-PNV, 1 SV-ES)

Kontrako botoak: 4 (EH BILDU)

Abstentzioak: 0



Erabakia: Lanpostuen Zerrenda eta Plantila Organikoan 2 ofizial plazak eta peoi plaza bat sortzeko udalbatzak 2015.04.30ean emandako hasierako onespena atzera botatzea onartu da.

5.- PROPOSAMENA.-

“HERRIKO TABERNEN” INGURUKOA.

5.1.- EAJ-PNV UDAL TALDEAK ETA EH-BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOA

UDAK GOBERNUAREN (EAJ-PNV) ETA EH BILDUREN ADIERAZPENA INPERNUPE KULTUR ELKARTEAREN EGOITZAREN ITXIERAREN AURREAN

Espainiako Auzitegi Gorenak, Euskal Herriko 107 herriko tabernaren itxi eta inkautazeko harturiko erabakiaren inguruan, eta honek Zumaia Inpernupe Kultur Elkarteari zuzenean eragiten dionez, honakoa adierazten du Udala Gobernuak:

1. Inpernupearen itxiera eta inkautazioaren aurka agertzen gara. 90 bazkide dituen elkarte gastronomikoa eta taberna izateaz gain, ekintza ugari antolatzen dituen kultur taldea du, berauen egoitza ixtea bidegabekeria da. Inpernupe azken 29 urteetan bertan parte hartu duten herritarrena da eta harturiko erabaki honen aurrean gure elkartasuna adierazi nahi diegu bertako kide eta erabiltzaile guztiei.
2. Auzitegi Gorenaren sententziak ez du zantzurik ematen Inpernupe istearren arrazoiaren inguruan. Bakea eta elkarbizitzaren bidean horrelako epaiak ez dira oztopo besterik. Oztopo hauen gainetik, herritar guztiei etorkizunerako bidea argi izanik, bakea, elkarbizitza eta justiziaren alde jarraitzeko deialdia egiten diegu.

Alkateak gaia aurkeztu du.

Arritxu Marañonek (SV-ES) ondorengoa da:

Quería explicar brevemente porque la intención inicial era la de la abstención, abstención en el sentido que el partido socialista habitualmente siempre habla de acatar las decisiones judiciales y en ese sentido iba a ser el sentido del voto una abstención.

Ha sido en contra por una razón, ciertamente sabía, conocía que andabais tal vez intentando llegar a un acuerdo con un texto, pero es que me he encontrado justo ahora aquí encima,

Se pretende que se apruebe y quede como un texto aprobado por el propio ayuntamiento y como ayuntamiento y como corporación y en ese sentido el partido socialista se ha visto un poco al margen y en ese sentido hemos decidido... he decidido votar en contra por esa razón.

Alkateak bertaratutako herritarrei hitza eman dien, Inpernupe Elkarteko ordezkariari hain zuzen ere. Herritarrak hitza hartzen du adieraziz:

- Hasteko, **eskerrak eman** nahi dizkiogu Udalari, adierazpen honengatik eta babes hau emateagatik. Datozen egunak edo hilabeteak ez dira samurrak izango, eta dena beharko dugu.



Zumaiaiko Udala

2015IAKU0008-007-001

- Inpernupe 1986an sortu zen, orain dela 29 urte, zumaiar askoren lanari eta ahalegin ekonomikoari esker, eta urte hauetan lanean aritu da, bere ekarpena egin die Zumaiari eta zumaiarrei. Inpernupek **beti ateak irekita** izan ditu, eta zumaiar eta talde asko izan dira bertan eta bertatik lan egin dutenak, Inpernupe Elkartearen espazioa aprobetxatu dutenak. Gainera, Inpernupe tabernak Erribera kalea biziberritzen lagundu du, eta Kultur Elkarateak ekitaldi ugari antolatu ditu: hitzaldiak, mahai-inguruak, txapelketak, ikastaroak, erakusketak, kontzertuak, bazkariak eta afariak... Zumaiar askorentzat **erreferentzia garrantzitsua** da Inpernupe.
- **Inpernupe norbaitena baldin bada bazkideona da**, gurea, eta urte hauetan erabili izan dutenena. Eta orain, bazkideon aurkako inolako epaiketarik gabe, lokala itxi eta kendu egin nahi digute. Hiru langile ere kalera joango dira, lanik gabe geratuko dira. Epaian **dekomiso** hitza erabiltzen dute, baina guretzat beste bi hitzek hobeto laburtzen dute ekintza hau: **lapurreta** eta **bidegabekeria**. Epaia lapurreta hutsa delako, eta epaia injustoa delako.
- **Inpernuperen proiektuak babes handia dauka Zumaian**, bazkideona eta beste zumaiar eta erabiltzaile askorena, eta etorkizunean lanean jarraitzeko asmoa daukagu, oztopo eta zailtasun guztien gainetik. Ate bat ixten denean, beste bat zabaltzen da, eta Inpernuperen proiektuak segida izango du, asko garelako honetan sinesten dugunak eta bultzatu nahi dugunak. Ez dugu gauza handirik eskatzen: lanean uztea eta lanerako oztoporik ez jartzea.
- Bide horretan, **eskertzen dugu Zumaiaiko Udalaren adierazpena** eta etorkizunean emango digun laguntza eta babesa.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeita bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



Zumaia Udala

2015IAKU0008-007-001